

## O BAKARTETXE

1) Mendi tontorra aulki duzula  
 ortze garbia estalki  
 baso soilune belartsu ortan  
 etzanik zakust apalki  
 beso sendoak eten bearrez.  
 otoizka gora luzaki;  
 O Bakartetxe, lillura ori  
 bai ote nezake jalki!...

2) Erritik urrun zerutik urbil  
 zuaitz-bakartasunean...  
 eder-jarioz itxutu nauzu  
 eguzkiren dirdaipean;  
 norik autatuko ote zizuken  
 txoko oberik lur gañean?...  
 O Bakartetxe, bai zoriontsu  
 nintzakela zurenean!...

3) Nere erriko zoko illuna  
 bein betiko utzi nairik  
 lur-grina, kezka, maitakeriak  
 mendi oiñan eortzirik  
 aidapa gora Zugana noa  
 soiñ-gogoak garbiturik.  
 O Bakartetxe, ez zakid'arren  
 itxi zorion aterik.

4) Mendiak berez baditu noski  
 edertasun bereziak  
 bañan'alar'ez gañez asetzen  
 zorion-grina guziak.  
 Otoi-kabi nai luke biurtu  
 nere Jainkomin' biziak.  
 O Bakartetxe, zuk narakarzu  
 ta zure bidez, ortziak.

5) Biotz-barnea mendi gañetan  
 poz-dardaraz zait lertzen  
 maitea urbil dabilkitala  
 bai du agian igartzen;  
 baso bakarra, ixiltasuna  
 arretaz zaito mintzatzen.  
 O Bakartetxe, kabi goxoan  
 zuk dituzu biak salzen

zuk dituzu biak batzen.

6) Zure barruan bizitza ezin  
iruditu aspergarri  
bizi-lagunen irri xamurra  
neketan dut aringarri,  
otoi-lanetan,maite-izketan  
jardun,biotz-goxogarri.  
O Bakartetxe, zu zaitut agiz  
Jainko-etxeko atari.

7) Mendian zear egurastea  
biotza pilpil zait asten  
asezkorra naiz bas'orrazetik  
zorion-etzia mizten,  
lore-belarren usaia arnastu,  
txorien kantak entzuten...  
O Bakartetxe, izadia bai  
asmakor dala zu jazten!...

8) Zorionean ez nik kiderik:  
aldiz, lurbira barrena  
begiratzean, biotz garbia  
bai dut poz lor'ederrena;  
aldiz, begiak ortziratzean  
poz-iturri-ur gaudena,  
O Bakartetxe, zuk ernetako  
betiko itxaropena.

Baztarrika'tar Isidor

Lazkau'ko Benedit.

